

Joxan eta etxeko emakumeak

Zer moduz, lagunok? Ondo?

Gaur, gure etxean jasaten nauten, eta jasaten ditudan pertsonak aurkeztuko dizkizuet. Hiru dira denera. Katixa ezagutzen duzue, baina beste biak ez. Bueno, Katixa txikitan ere ez duzue ezagutzen! Orain ezagutuko dituzue!

Hau Maite da, nire andrea. Ze guapa, ezta? Ba, barrutik, are gehiago. Beti zaindu du asko bere itxura, eta gaztetan ere bai! Begira!

Argazki honetan gaztetxoa zen! Ikusten duzue nolako ilea zeukan? Kizkur-kizkurra eta luzea! Garai hartan hasi ginen irteten elkarrekin. Eta gaur arte, aizue!

Eta, hemen? Hemen biok gaude. Bai, bai... Bere alboan dagoena ni neu naiz! Ez nago horren aldatuta, ezta? Beharbada ile gutxiago, baina tira! Argazki hori lagun batek atera zigun; kontzertu batera gindoazen lehen egunean. Hertzainak! A zer garaiak...

Eta bi dama hauek, ba, nire bi alabak dira. Argazki honetan, Libek sei urte izango zituen eta Katixak bost. Ezetz asmatu nor den Katixa?

Bada, ilehoria! Bai, txikitan ilehoria zen, eta oso lotsatia. Bai, bai, entzuten duzuen bezala. Oso lotsatia; beti egoten zen amaren gona azpian, lotsa-lotsa eginda; ez du, ez, oraingo antzik!

Eta alboan dagoena Libe da, alaba zaharrena; bikiak ematen dute, urtebeteko aldea besterik ez dute-eta. Libe, umetan, ez zen isilik egoten; berritsu-berritsua zen, mundu guztiarekin hitz egiten zuen: txor-txor...

Gaur egun, ordea, kontrakoa da; Katixaren aldean, isila da eta oso zintzoa. Ez dut esan nahi Katixa zintzoa ez denik, baina, badakizue, mugituagoa da, bihurriagoa...

Eta, argazki honetan, biok gaude. Ikusten duzue zer neska ederra zen Katixa!! Lehen, oso jatun ona zen, mahaian eseri orduko, di-da jaten zuen guztia, ikusgarria zen! Orain ere bai, baina orain janari beganoak eta horrelakoak gustatzen zaizkio. Beti du plater berriren bat probatzeko, eta batzuetan, otordu arraro samarrak egiten dizkigu eta guk isil-isilik jaten ditugu. Zer erremedio!

Bueno, lagunok! Hauxe da nire familia. Hori bai, alabak zertan nabilen ikusten badu, haserretu egingo da; beraz, utzi egingo zaituztet!

Laster arte!

AGUUUUURRR!!!!